

Kaixo lagun,



jakinaren gainean jarri nahi zaitugu, gaur bertan (2012/02/07) B.O.E.-n, otsailaren 6ko datarekin, ECD/191/2012 agindua irten dela. Agindu honek 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak irakasleen kidego ezberdinetara sartzeko eta espezialitate berrien hartzeko gai-zerrendak arautzen ditu: <http://www.boe.es/boe/dias/2012/02/07/pdfs/BOE-A-2012-1825.pdf>

Agindu honek, bertan behera uzten ditu 2011/11/18 datarekin B.O.E-n argitaraturiko aginduak 2012tik aurrerako oposizioetarako ezartzen zituen gai-zerrendak berriak, eta indarrean mantentzen ditu aurrez aipaturiko aginduak aipatzen dituen gai-zerrenda zaharrak (ikus agindua [ECD/191/2012 1,2,3 artikuluak](#)).

Hauek dira 2012/02/7 agindu berriak bertan behera etenda uzten dituen 2011/11/8ko aginduak:

- Maisu-maistren kidegoa: <http://www.boe.es/boe/dias/2011/11/18/pdfs/BOE-A-2011-18097.pdf>
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoa: <http://www.boe.es/boe/dias/2011/11/18/pdfs/BOE-A-2011-18098.pdf>
- Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntzako irakasleen kidegoa: <http://www.boe.es/boe/dias/2011/11/18/pdfs/BOE-A-2011-18099.pdf>

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak behin-betikoz oposizio deialdia argitaratu zain (otsailaren 15aren inguruan), oposizioetarako gai-zerrendak orain arte izan ditugunak izango dira dagozkien eguneraketekin.

Aldaketa hauek izanda ere gai-zerrendak erosi nahi dituzten ELAren afiliatuek orain arteko baldintza beretan egin ahal izan dute, ELAren web orriaren bidez eskaera eginda: http://www.ela-sindikatu.org/eu/federazioak/gizalan/epe-irakaskuntza-2012?set_language=eu

Bestalde, CEP editorialarekin adostu dugu gai-zerrenda berriak eskatu eta jada hauek erosteko interesik ez dutenek azken eguneraketak jasotzen dituzten gai-zerrenda zarrengatik alda ahal izango dituztela (inolako gain kosturik gabe) edo editoriala dirua buelta diezaieten eska diezaioke.

Besterik gabe, honek guztioi ahalik eta eragozpen gutxien sor diezagun espero zagu agurtzen gara.